

Deialdia, Uharteko Udalean sustatzaile lanpotuan, euskarazko ezagutzarekin, aldi baterako kontratazioetarako deialdia, oposizio-lehiaketa bidez, sor daitezkeen beharrak betetzeko.

1. oinarria.-Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Uharteko Udalaren gazte lokalean sustatzaile lanpotuan, euskarazko ezagutzarekin, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetarako zerrenda bat egitea, oposizio-lehiaketa bidez.

1.2. Lanpostuak C mailako eta plantilla organikoan ezarritako ordainsaria izanen du eta betetzen duena lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratatu izanen da.

1.3. Lanaldiaren araubidea zerbitzuaren beharretara egokituko da.

1.4. Deialdi honen pean eginen diren kontratazioetarako, bi hilabeteko probaldia ezartzen da.

2. oinarria.-Eginkizunak.

2.1. Hona hemen egin beharreko eginkizunak:

a) Uharteko Gazte-lekuan edo Gazte-lekutik egiten diren programak betetzea.

- 1) Gazteek parte hartzeko programa.
- 2) Hezkuntza-Prebentzio-Esku-hartze programa.
- 3) Aisia eta astialdirako programa.
- 4) Informazio programa.

b) Gazteria arloko teknikariarekin harreman estuan lan egitea.

c) Uharteko gazteek Gazte-lekuan proposatzen dituzten ekimenak biltzea.

d) Uharteko gazteendako interesgarriak izan daitezkeen jarduera guztietan parte hartzea: aisia osasungarria helburu dutenak, kirol arlokoak, arte gaztearekin bere alderdi guztietan ikusteko duten kultur jarduerak: musika, ikus-entzunezkoak, dantza, antzerkia, arte plastikoak etab.

e) Gazteen partaidetza bulkatzea Gazte-lekuko programa eta jardueren antolaketa eta kudeaketan.

f) Gaztelekuko jardueren zabalkunde edo sustapena.

g) Proiektuak eta txostenak prestatzen, diru-laguntzak eskatzen eta abarretan laguntzea, Uharteko Gazte-lekua biziarazteko.

h) "Espazioen lagapena" zerbitzutik heldu den lana egitea: laga beharreko espazioen eskaeren kontrola, espazioen eta ekipamenduen kontrola etab.

i) Gazte-lekuaren beheko solairuan dagoen ziber-espazioa gobernatu eta biziaraztea.

j) Etxezain lanak: aretoak ireki eta ixtea eta beheko solairuan dagoen litxarrerria makina kudeatzea.

k) Udaleko Gazteria Alorrean antolatzen diren gainerako programa eta jardueretan laguntzea, Gazte-lekuan gauzatzen badira.

l) Aipatu eginkizunak betetzeko behar diren zerbitzu eta teknikariekiko koordinazioa.

m) Dagozkien lanpostu, titulazio eta mailarekin bat Udalak manatzen dizkien gainerakoak.

3. oinarria.-Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

3.1. Oposizioan onartuak izateko, izangaiek eskabideak aurkezteko epea bururatzen den egunerako ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako hiritarra izatea edo Europako Batasuneko bertze estatu batekoa, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen duen eremuko estatu batekoa.

Orobat, espainiarren eta Europako Batasuneko bertze estatuetakoa herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, Europako Batasuneko herritarren ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beheitikoak badira, edo goitikoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urteak beteak izatea eta erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Eskakerak aurkezteko epea burutzen den egunean Goi Mailako Batxilergoko titulua, Bigarren Mailako Lanbide Heziketakoa edo baliokidea izatea edo eskuratzeko baldintzetan egotea.

d) Euskarazko 2. hizkuntza eskakizuna edo, bertzenaz, titulu baliokide edo goragokoa izatea. Frogatu beharko du Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiria edo ofizialki baliokidea den titulua aurkeztuta; bertzenaz, proba bat gainditi beharko da, izangaiaren hizkuntza maila behar adinakoa dela egiaztatzeko.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko gabetua edo desgaitua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izatea.

3.2. Lanpostua eskuratzen duten izangaiek baldintza horiek betetzen dituztela frogatu beharko dute, deialdi honetako hamargarren oinarrian ezartzen diren epean eta moduan. Baldintzak bete beharko dituzte, hain zuzen ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eta horien jabe beharko dute izan oposizioaldiak dirauen bitartean eta izendapena egiten den arte.

4. oinarria.-Eskabideak.

4.1. Eskabideak Uharteko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hogeita hamar egun naturalen barrenean. Aipatu eskabideak deialdi honetan argitaratutako ereduaren arabera bete beharko dira eta, haietan, izangaiek adierazi beharko

dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

4.2. Eskabideak deialdian argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio eta dokumentazio hau erantsiko zaie:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasun agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua.

b) Deialdi honetako 3.1 atalean eskatzen diren baldintzen jabe dela ziurtatzen duten agirien fotokopia konpultsatua.

Eskabidean adierazi beharko da euskara egiaztatzeko proba egin nahi izatea, dena den, ezagutza egiaztatzen dutenek ez dute probarik egin behar.

c) Lehiaketan baloratzen ahal diren merezimenduen fotokopia konpultsatuak.

d) Udalaren Diruzaintzan azterketa eskubide kontzeptupeko 11,67 euroko tasa ordaindu izanaren egiaztageria. Azterketa eskubideko tasa ordaindu ez izanak izangaia baztertua izatea ekarriko du.

Aipatu tasa hori jarraian aipatzen den era hauetara egin ahalko da:

-Eskudiruzko ordainketa Uharteko udalaren bulegoan (San Juan plaza, 1)

-Dirua sartuz edo banku transferentzia eginez Rural Kutxako ES59 3008 0087 74 1447560721 kontu zenbakian. Kasu honetan, ordainagirian ondorengo datuak agertu beharko dira nahitaez:

-Izangaiaren izen-deiturak.

-Kontzeptua: Oposaketako tasa.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egonen dira langabezia dauden pertsonak. Horretarako enplegu-eskatzailer txartela aurkeztu beharko dute, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak luzatua eta eguneratua.

5. oinarria.-Epaimahaia.

5.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

-Mahaiburua: M^a Lourdes Lizarraga Casanellas, Uharteko Udaleko 2. alkateordea.

-Ordezkoa: Iñaki Crespo San José, Uharteko Udaleko alkate-udalburua.

-Mahaikidea: Uharteko Udalaren Gazteria teknikaria.

-Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

-Mahaikidea: Regina García, Uharte eta Esteribarko Zerbitzu Mankomunitateko gizarte hezitzailea.

-Ordezkoa: Amaia Alonso, Uharte eta Esteribarko Zerbitzu Mankomunitateko gizarte hezitzailea.

-Mahaikidea: Izendatu beharreko Udal bateko Gazte teknikaria.

-Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

-Mahaikidea: Ana Mindegia Ilarregi, Uharteko Udaleko lan-kontratudunen ordezkaria.

-Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

-Idazkaria: Uharteko Udaleko idazkaria.

-Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

5.2. Mahaiburuak deituta, probak hasi baino lehenago eratuko da epaimahaia.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

5.4. Epaimahaiak gehiengoaz ebatziko ditu dei honetako oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari jakinaraziko diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean baldin badaude.

Halaber, izangaiek mahaikideak errefusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6. oinarria.-Lehiaketaren nondik norakoa.

6.1. Lehiaketaldiak gehienez ere **30** puntuko balorazioa izanen du, gisa honetan banaturik:

a) Laneko eskarmentua lanpostuarekin ikusteko duten eginkizunetan, gehienez ere **20** puntu:

-Gazte lokal batean lan egindako urte bakoitzeko, **4** puntu eta gehienez ere **16** puntu. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

-Gazte elkarte batean lan egindako urte bakoitzeko: puntu **1**, eta gehienez ere **4**. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

b) Titulazio akademikoak, gehienez ere **9** puntu.

-Graduondokoak Gazteria arloan: **3** puntu.

-Gizarte eta kultur jardueren sustapeneko goi mailako teknikaria: **2** puntu.

-Gizarte Integrazioko goi mailako teknikaria edo Gizarte Hezkuntzako diplomaduna: **2** puntu.

-Unibertsitateko aditua gazteendako informazio zerbitzuetan eta herritarrendako informazio zerbitzuetan: puntu **1**.

-Aisia eta astialdiko zuzendari ikastaroa: **0,75** puntu.

-Aisia eta astialdiko begirale ikastaroa: **0,25** puntu.

c) 20 h baino gehiago irauten duten ikastaro eta jardunaldietara joateagatik, epaimahaiaren iritziz deialdiko lanpostuarekin ikusteko badute, 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu **1**.

6.2. Izangaiek lehiaketan eskuratzen duten puntuazioa udaletxeko iragarki oholean eta www.huarte.es web gunean argitaratuko da, probak hasten diren egun berean.

7. oinarria.-Oposizioaren nondik norakoa.

7.1. Oposizioko probek, gehienez ere, **70** puntuko balorazioa izanen dute. Bazterturik geldituko dira proba eta ariketa bakoitzean hari esleitutako puntuazioaren erdia eskuratzen ez dutenak.

7.2. Oposizioak hiru proba izanen ditu; haien bidez, lanpostuko jardueraz izangaiek dituen ezagutza praktikoak baloratuko dira:

a) Proba idatzia. Lanpostuko eginkizun eta edukiekin ikusteko duten kasu praktikoak argitzea. Gehienez ere **30 puntu** (gainditzeko gutxienez ere 15 puntu eskuratu beharko dira).

b) Ahozko proba. Lanpostuko jarduerari buruzko ezagutza praktikoak baloratuko dira. Gehienez ere **20 puntu** (gainditzeko gutxienez ere 10 puntu eskuratu beharko dira).

c) Proba psikoteknikoa. Gehienez ere **20 puntu** (gainditzeko gutxienez ere 10 puntu eskuratu beharko dira).

8. oinarria.-Proben balorazioa.

8.1. Mahaikide bakoitzak bere aldetik jarriko ditu puntuazioak, eta horiekin banaz-bertzeko aritmetikoa egingen da ariketa bakoitzaren puntuazioa ateratzeko. Epaimahaiko kideek emandako gehieneko puntuazioaren eta gutienekoaren artean aldea baldin bada ariketarako aurreikusi den puntuazioaren %30etik gorakoa, ez da aintzat hartuko bi muturretako ezein puntuazio, eta banaz bertzeko aritmetikoa, gainerako puntuazioekin lortuko da.

9. oinarria.-Proben deialdia.

9.1. Informazio guztia Uharteko udaletxeko iragarki oholaren eta www.huarte.es web guneraen bidez emanen da,

9.2. Behin behineko zerrenda argitaratuko da. Bazterturen bat egonen balitz, hamar eguneko epea emanen da erreklamazioetarako

9.3. Proben datak eta izangaien behin betiko zerrenda Uharteko udaletxeko iragarki oholean eta www.huarte.es web gunean argitara emanen da.

9.4. Epaimahaiak argitara emanen ditu, Uharteko udaletxeko iragarki oholean eta www.huarte.es web gunean, gainditu duten izangaien zerrenda eta proba bakoitzean erdietsi dituzten kalifikazioak.

10. oinarria.- Identifikazioa eta bestelakoak.

Izangai guztiek nortasun agiri nazionala edo legezko ordezkoa aldean dutela agertu beharko dute probetara. Probetan notak kopiatzea edo bestelako fraudeak egitea, probetatik berehala baztertzea ekarriko du, akzio penalei kalterik gabe, egoki bada.

11. oinarria.- Probak gainditu dituztenen zerrenda eta deiak.

11.1. Azken ariketaren kalifikazioa burututakoan, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitara emanen du udaletxeko iragarki oholean eta www.huarte.es web gunean, erdietsitako puntuazioaren hurrenkeran, probetan izangai bakoitzak lorturiko kalifikazioak batuz.

Berdinketaren bat emanen balitz, adinez nagusiagoa denaren alde ebatziko da.

11.2. Gainditutako izangaiak deituak izan ahalko dira, puntuazioaren hurrenkeraren arabera, Uharteko udalaren zerbitzu horretan ematen diren beharretarako, deialdi honetako oinarrietan eta indarrean dauden aplikaziozko araudietan ezarritakoaren arabera

11.3. Izangaien deiak zerrendak kudeatzeko araudian ezarritakoaren arabera egingen dira, 2012/04/20ko 7. zenbakidun NAOean argitaratua.

Deiak egiteko, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren Seigarren Xedapen Gehigarriaren 3. atalean eta maiatzaren 31ko Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko 16/2002 Foru Legean emandako erredakzioan ezarritakoa.

11.4. Edozein unean kontratatutako pertsonak, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta eman eta afiliatuko dira, eta, ondorioz, haien kargura joanen dira dagokien kuota, hala nola EGZ atxikipena bidezkoa den kantitatean.

12. oinarria.-Errekurtsoak.

Deialdi honen kontra nahiz haren oinarrien eta aplikazio egintzen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian dagokion Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazten edo argitaratzen denetik aitzina, baita, hautara, gora jotzeko errekurtsoa ere, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazten edo argitaratzen denetik aitzina.

I. ERANSKINA

Eskabide eredua

Eskatzailearen datuak:

Izena eta abizenak:

Jaioteguna:

NAN:

Helbidea:

Herria: Posta kodea:

Telefonoa:

Posta elektronikoa:

Adierazten dut:

Uharteko Udalak argitara eman du Uharteko gazte lokalean sustatzaile lanpotuan, euskarazko ezagutzarekin, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetarako zerrenda bat, oposizio-lehiaketa bidez, egiteko deialdia.

Deialdian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala.

Deialdian eskatzen diren agirien fotokopia konpultsatua eranstean dudala, baita lehiaketaldian baloratu beharreko merezimendua ere.

Eskabidea:

Eskabide hau onartu eta, horrenbertzez, delako deialdiko probetara onartua izateko eskatzen dut.

- Behar den euskara maila dudala frogatu dut.
- Euskarazko aukerako proba egin nahi dut.

(Data eta eskatzailearen sinadura)

UHARTEKO UDALEKO ALKATE UDALBURUA.

Uhartan, 2015eko urtarrilaren 29an.-Alkatea, Iñaki Crespo San José.